

GARBIALDI = KUDEAKETA TXARRA TUBACEX GAIZKIDEA!

Ez da aurreneko aldia, ez eta azkena ere, LAB sindikatuak bere burua behartua sentitzen duela salatzen Garbialdik Tubacexen egiten duen kudeaketa txarra jendartean. Garbialdi enpresak garbiketa zerbitzua bere gain hartu zuenetik, gure zerbitzu juridikoek hamaika bider esku hartu behar izan dute egunero sortzen diren arazoek ekiteko, adibidez, ordainketetan jazo atzerapenei, bat-bateko soldata jaitsierei, mehatxuei, laneko eta sindikatuen jazarpenari,...

Dena den, azken hilabeteotan egoera jasangaitza bihurtu da, irregulartasun kopurua handiegia da, eta salaketa eta bidegabekeriaren aurka borrokatzea, beti egin dugun moduan, geratzen zaigun bide bakarra da:

-PLUS TOXIKOA: Gure aburuz, ulergarria deritzegu akatsa egiteari eta PLUS TOXIKOA ez ordaintzeari nomina batean baino gehiagotan. Oharra helarazi genion enpresako zuzendaritzari, gure ordezkariak egoeraren berri eman ziguten bezain laster.

Enpresa jabetu zen erruaz eta barkamena eskatu zuen, baina ordainketa egin nahi izan zuenean hurrengo hilabeteetan, ez zituzten behar bezala kalkulatu kopuruak, eta gaur egun, oraindik zor zaie dirua langileei. ONARTEZINA!

- NOMINAK PAPEREAN: Enpresa askok erabakitzen ari dira nominak eskura banatzea baztertuko dutela; horretarako, beraien web orrietan "enplegatuen atariak" antolatu dituzte haiek eskuratzeko. Ez gaude metodo horren aurka, haren helburuetako bat, besteak beste, paperetan xahutzen dena murriztea delako. Dena dela, litekeena da pertsona askok ez izatea behar beste ezagutzarik edota baliabide teknikorik ez izatea atari horiek atzitzeko.

LAB sindikatuak erabaki zuen Garbialdirekin harremanetan jarriko ginela, eta zuzentzeko aukera emango geniola, pertsona horiek guztiek beraien nominak ahalik eta errazen atzitu zituzten. Erabateko EZETZA batez erantzun ziguten. Geratu zitzaigun irtenbide bakarra Lan Ikuskaritzan salaketa aurkeztea izan zen; hark behartu zuen Garbaldi, urtarrilak 14 zituenetik, nominak paperean banatzera eta langileak trebatzera, behar izango balute, enplegatuen atarira atzitzeko. Non daude paperezko nominak? ONARTEZINA!

- ERRELEBO KONTRATUA: Edalontzia bete duen azken tanta dugu. Errelebo kontratua arautzen duen legea aldatu da 2019. urtean; aldaketak eragin dio errelebo kontratua iraganean baino garestiagoa gertatzeari enpresentzat. Honen eraginez Garbialdik erabaki du ez duela errelebo kontratu gehiagorik egingo 2012ko urtarrilaren batetik aurrera.

Enpresak ez daitezke derrigortu errelebo kontratuak egitera, baina honelakoetan, jazo dena lotsagarria da. Garbaldi gauza izan da gure Ordezkaritza Sindikalaren errelebo kontratuaren eskaera galtzeko, zeinak eskatu adina duen, eta behar beste kotizatu duen, eta hitzez dena "ondo" zegoela jakinarazi zitzaion. Oraindik inolako erantzunik jaso ez duen langile batez ari gara. ONARTEZINA!

Amaitu baino lehen, azpimarratu nahi genuke zaila dela Garbialdirekin harremanetan jartzea. Enpresaren gerentzia ukatzen da gu hartzera, hitzordua ematera; enpresaren egoitzan gaudela ere, gerentziakoak bertan daudela, uko egiten diote gu hartzeari. Bestalde, ez dezagun ahantz hau ezinezkoa gertatuko litzatekeela Tubacexeko azpikontraten arduradunaren, Joses Manuel Andres Alonso jaunaren gaizkidetasunik gabe eta haren betekizunen utziera egin izan ez balu; aipatu jauna gure sindikatuak aspaldi ezagutzen du, gure ordezkari sindikalak etengabe jasan behar izan duen jazarpenaren bete duen betekizunagatik.